

**SAKANAKO IGERIKETA TALDEARI DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA. 2024
URTEA**

1.- Lehenengoa: helburua

1.- Deialdi honen helburua Sakanako Igeriketa taldeak dauzkan gastuetan laguntzea da. Horretarako Sakanako Mankomunitateak kiroleko aurrekontutik 1300 €ko partida erabiliko du: Oinarriok arautzen dituzten diru-laguntzak aurrekontu erabilgarriaren arabera izanen dira.

2.- Bigarrena: bete beharreko baldintzak

2.1.- Kirol elkarteak Sakanakoa izatea.

2.2.- Eskualdeko izaera izatea taldeak.

2.3.- Talde hauei, Sakanako Mankomunitateak, elkarlana eskatu ahal die bere jarduerak antolatzen.

2.4.- Emakumeen presentzia taldean kontuan izango da.

2.5.- Desgaitasun funtzionala duten pertsonen presentzia taldean kontuan izango da.

2.6.- Haur eta nerabeen babeserako protokoloa izatea eta babes-ordezkaria izendatua egotea baloratuko da. Haur eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes integrala emateari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa.

3.- Hirugarrena: aurkeztu beharreko dokumentazioa:

3.1. Eskaera orria guztiz bete.

3.2. Balantze ekonomikoa: gastuak eta sarrerak. Zerrendatu. Mankomunitateak aukera izango du fakturak eskatzeko edozein kasutan.

3.3. Taldearen partaideak, izen abizenak, herria eta jaiotze urtea. Emakumezkoen kopurua zehaztu.

3.4. Taldearen jardueraren memoria labur bat.

3.5. Monitoreen izenak eta entrenamendu egutegiak eta ordutegiak.

3.6. Euskara

Monitoreak euskaldunak izatean.

Euskararen erabilpena entrenamenduetan.

Euskararen erabilpena karteletan, eta zabaltzen de bestelako dokumentazioetan (adibideak gaineratu behar dira).

3.7. Emakumeen presentzia taldean

Zehaztu kirolari neska eta mutilen zerrenda

Zehaztu monitore edo entrenatzaile neska eta mutilen zerrenda

Zehaztu juntakide neska eta mutilen zerrenda

3.8. Desgaitasun funtzionala duten pertsonen presentzia taldean

3.9. Haur eta nerabeen babeserako taldearen protokoloa eta babes-ordezkararen izen-abizenak

4.- Laugarrena: Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea: Balorazio batzordeak, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten badu, hamar egun emango zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikulua arautzen duen bezela. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

5.- Bostagarrena: Balorazio batzordea:

Kirol Zerbitzuko teknikariek aztertu eta baloratuko dituzte aurkeztutako eskabideak.

6.- Seigarrena: Eskaerak aurkezteko lekua: dokumentazioa Sakanako Mankomunitateko erregistro orokorrean aurkeztu behar da:

Sakanako Mankomunitatea
Kirol Zerbitzua
Uriz 32
31830 Lakuntza
Telefonoa: 948 464867
E-posta: erregistroa@sakana-mank.eus

7.- Zazpigarrena: Eskabideak aurkezteko epea:
2024ko abenduaren 12an amaituko da.

8.- Zortzigarrena: Diru- laguntzaren jakinarazpena:

Sakanako Mankomunitateko lehendakariak dagokion ebazpena egin eta jakinaraziko du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta argitaratutako hurrengoekin bat 2025eko urtarrilaren 31a baino lehen, jasotzailearen zerrenda eta zenbatekoak adieraziz; onartu gabekorik baleude, berauen berri ere bertan emango da zergatiakin batera.

9.- Bederatzigarrena: Bateragarritasuna:

Deialdi honetako diru- laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain- finantzaketarik gertatzen ez bada.

10.- Hamargarrena: Datuen babesa:

Tratamenduaren arduraduna: Sakanako Mankomunitatea.

Xedea: Kirol Zerbitzuak hiritarrei eskainitako zerbitzuen kudeaketa eta, eskatuz gero, zerbitzuak antolatutako ekimenak eta informazioaren bidalketa.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko edota ezabatzeko eskubidea duzu, baita bestelako eskubideak ere, Mankomunitatearen bulegoetara edo info@sakana-mank.eus helbidera joz.

Informazio gehiago: Pribatutasun Politika www.sakana-mank.eus helbidean.

Besteren datuak:

Tramitazioan, hura burutzen ari den pertsonaren aparteko norbaiten datu pertsonalak sartu beharko balira, egin aurretik hirugarren pertsona horri aurreko paragrafoan bildutakoaren berri eman beharko zaio, eta haren berariazko baimena eskatu, hala beharko balitz.

11.- Hamaikagarrena: Errekurtsoak.

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio ebazpenen aurka, ondoko errekurtsoak aurkezteko ahalgo dira:

- Berraztertze errekurtsoa, administrazio egintzaren egile den organoari zuzendua. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina hilabeteko epean.
- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.